| FITXAREN KODEA:<br><br>CA01 | IZENBURUA: (APUE) Iruñea. Liburutegi eta Agiritegi fisikoak. |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Liburutegi eta agiritegi espezializatua da, sarbide publikokoa, baliabide eta informazio iturri izan nahi duena; herritarrentzako baliabidea da, herritarren parte hartzea eta gizartearen ahalduntzea sustatzeko eta ezagutzeko. Nafarroako Liburutegi Publikoen sareari atxikita dago.

**Baliabide erabilgarriak:**

**01 PARTE HARTZEA**: Komunitatearen garapena (komunitate osasuna, gizarte ekintza, komunitate kultura), haurren parte hartzea, parte hartzea feminismoaren ikuspegitik, adinekoen parte hartzea, gazteen parte hartzea, ereduak, esperientziak, parte hartzea eta aldaketaren kudeaketa, erakundeak, parte hartzeko aurrekontuak…

**02 DEMOKRAZIA**: Ereduak, gogoetak, erakunde aldaketak…

**03 GIZARTE MUGIMENDUAK.**

**04 HIRIA**: Gizartearen ikuspegitik landutako hiri ereduak, hiriak birpentsatzea, gentrifikazioa, hirigintza jasangarria…

**05 AHALDUNTZEA.**

**06 GIZARTE TREBETASUNAK**: Sormena, talde adimena, erresilentzia, talde dinamikak, aldaketa ahalbidetzea, gatazkak kudeatzea...

**07 KOMUNIKAZIO TREBETASUNAK**: Indarkeriaz kanpoko komunikazioa...

**08 ANIMAZIO SOZIOKULTURALA.**

**09 ESKU HARTZE SOZIALA / GIZARTE LANA.**

**10 HEZKUNTZA**: Hezkuntza eredu berritzaileak, hezkuntza ereduen inguruko gogoetak, aisialdiko hezkuntza, hezkuntza komunitarioa, hezkuntza alternatiboak…

**11 JOLASAK ETA JARDUERAK**: Parte hartzea sustatzekoak, gamifikazioa…

**12 DESBERDINKERIA**: Pobrezia, immigrazioa, kulturartekotasuna, gizarte bazterkeria, zurrumurruak eta aldaketarako elkarrizketak…

**13 EKONOMIA**: Ekonomia alternatiboa, krisiari aurre egiteko kudeaketa, desazkundea, pribatizazioen murrizketak, prekarietatea…

**14 ELKARTEAK ETA BOLUNTARIOAK**: Baliabideak, ikerlanak, gidaliburuak…

**15 KOMUNIKAZIOA**: Open access mugimendua, gizarte eraldaketarako komunikazioa, ziberekintzailetza…

**16 ERREALITATEAZ JABETZEA**: Soziologia, filosofia, egungo gaiak, bizi gareneko gizarteari buruzko gogoetak...

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

Ezagutza parte hartzearen oinarria da.

**ERAGILEAK**

(Antolakuntza eta egitura)

Udala eta herritarrak

**KATEGORIA**

☒**GAIKUNTZA**

☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA

☐ UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA

☐ ANTOLAMENDU EGITURA

☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK

☐Beste batzuk…

**EKARPEN BERRITZAILEAK**

(Antolakuntza eta egitura)

**EZARGARRITASUN MAILA**

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

**ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)

**BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)

http://participa.pamplona.es/centro-de-participacion/bibliozentro/

| FITXAREN KODEA:<br><br>CA02 | IZENBURUA: Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskola (APUE) Iruñea. DANZAR-ME<br><br>(ikastaro hau dagoeneko programaren baitako tailerren lanketa. **Norbanakoaren ahalduntzea, taldearen eta elkartearen ahalduntzea eta gizarte eta komunitate ahalduntzea)** |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

**Dantza tailerra.** Tailer honen helburu orokorra ahalduntzea da, norberaren zaintza eta norberaren ezagutza gisa ulertuta, gorputza eta haren mugimendua baliatuz. Gure barruarekin, senarekin, sormenarekin eta samurtasunarekin lotzeko aukera emango digu, gure buruari entzuten ikasiz, gure erritmoak errespetatuz eta geuk aukeratzen ditugun aldaketak sortuz eta haiei eutsiz.
Gorputz bizia, zentzuduna, entzuna eta errespetatua gorputz alaia da, gorputz adiskidea, gorputz laguna, gorputz ahaldundua. "Nire gorputza zaintzen dut, nire mundua munduaren barruan"

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

Parte hartze zentzuduna sustatzeko, adimenaren alderdiaz gain, oreka fisikoa ezinbestekoa delako. "mens sana in corpore sano"

| ERAGILEAK | KATEGORIA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>APUE<br><br>Herritarrak | ☒**GAIKUNTZA**<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐ UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk... |

| EKARPEN BERRITZAILEAK | EZARGARRITASUN MAILA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura) | ☐Txikia |

| | |
|---|---|
| Ez dago gorputzaren zaintza aintzat hartzen duen jarduera askorik. | ☐Txikia-ertaina<br><br>☒Ertaina<br><br>☐Ertain-handia<br><br>☐Handia |

| |
|---|
| **ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br><br>Beharbada, herritarren kontzientziazio eskasa gorputzaren zaintzaren inguruan, norbanakoaren oreka emozionala eta garapen psikikoa ahalbidetzeko. |
| **ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)<br><br>Parte hartzaileen kopurua eta programaren garapenaren iraunkortasuna. |
| **BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>**http://pamplona.es/verDocumento/verdocumento.aspx?idDoc=1355784** |

| FITXAREN KODEA: CA03 | IZENBURUA: (APUE) Iruñea. Erabaki – Hiriko/lurraldeko herritarren parte hartzeari buruzko araudia |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Herritarrek parte hartzeko araudia, udalerriko herritarren parte hartzea arautzen duten arauak eguneratzeko prozesu parte hartzailea.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

Legealdi honetan, Iruñeko Udala ahalegin handia egiten ari da herritarren parte hartzea bultzatzeko.

Herritarrek gardentasun handiagoa eta udal kudeaketari doazkion erabakiak hartzean eta kudeaketa garatzean parte hartze handiagoa eskatzen dizkiote administrazio publikoei. Azken bi urteotako lanak erakusten duenez, esparru arautzaile berria zehaztu behar da, gure hiriko herritarren parte hartzea hobetzeko eta, beraz, hiriaren beraren kalitate demokratikoaren hobekuntza ahalbidetzeko.

Horretarako Herritarrek Parte hartzeko Araudi berria behar dugu, indarrean dagoen legeriari egokitutakoa, haren aplikazio eremuak eta helburuak aldatuta eta ugarituta. Herritarrek parte hartzeko organoak (kontseiluak, bilguneak eta lurraldeko nahiz sektoreko behatokiak) birformulatuz eta herritarren kontsultak, ekimenak eta proposamenak aintzat hartuz. Parte hartzeko prozesuen eta lineako parte hartzearen arauketari ekinez. Herritarren eta herritarren elkarte edo antolakundeen eskubideak zabalduz eta birformulatuz, herritarren parte hartzeari eta gizarte ahalduntzeari dagokienez. Herritarren parte hartzea bideratzeko erak, prozedurak, tresnak eta babes neurriak handituz eta birformulatuz; herritarren, gizartearen eta herritar aktiboen parte hartzea sustatuz eta garatuz, administrazio publikoen eta gizartearen lankidetza erregulatzen duen esparrua baliaturik.

| ERAGILEAK | KATEGORIA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br>Herritarrak eta Udala. | ☒**GAIKUNTZA**<br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br>☐ UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br>☐ ANTOLAMENDU EGITURA<br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br>☐Beste batzuk… |

<table>
<tr>
<td>EKARPEN BERRITZAILEAK<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Araudia era parte hartzailearen bidez sortzea</td>
<td>EZARGARRITASUN MAILA<br><br>☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☒Ertaina<br><br>☐Ertain-handia<br><br>☐Handia</td>
</tr>
<tr>
<td colspan="2">ARRISKUAK (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br><br>Herritarren eskola sortuta badago eta, bertan, jende asko badago, prozesua oso aberasgarria izan daiteke, baina sortzeke badago, herritarrak mobilizatu behar dira eta ez da lan erraza izango.</td>
</tr>
<tr>
<td colspan="2">ADIERAZLEAK (ebaluazioa, hala badagokio)</td>
</tr>
<tr>
<td colspan="2">BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>https://erabaki.pamplona.es/processes/reglamentoparticipacion</td>
</tr>
</table>

| FITXAREN KODEA: | IZENBURUA: |
|---|---|
| CA04 | Osasun Eskola, Paziente Bizia |

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Osakidetzaren eta Osasun Sailari atxikitako zerbitzua da, eta herritarrei informazioa eta prestakuntza eskaintzen die, norberak jarrera arduratsua eta aktiboa izan dezan osasunaren eta gaixotasunaren inguruan.
Ildo horretan, Osasun Eskolan paziente bizitzat hartzen dugu, gaixotasun jakinen bat izanik, gaixotasun horri buruzko informazioa jasotzen duena, bere burua zaintzen gogotik ahalegintzen dena, bere aldaketa emozionalak kudeatzen gai dena eta profesionalekin lankidetzan aritzen dena, betiere jarrera positiboa izanda eta bere osasunari buruzko erabakiak hartzen parte harturik.

Ekimen honen helburua da Osasun Eskola pazientearentzako eta etxekoentzako erreferentzia bilakatzea, osasuna edo gaixotasuna hobetzen laguntzen duten informazioa, prestakuntza, tresnak eta baliabideak bilatu behar denean.
Baliabide honetan, pazienteak kalitateko informazio idatzia edo osasun arloko profesionalek egiaztatutakoa aurkituko du, azken ebidentzia zientifikoetan oinarritutakoa, hizkera erraza eta ulergarria erabilita.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Baliabideak, informazioa eskaini ez ezik, pazientea gaitzen duelako eta profesionalen nahiz pazienteen arteko lotura ezartzen duelako, helburu erkideak lortzeko xedez.
- Pazienteak osasunaren inguruko erabakietan parte har dezan bultzatzen duelako.
- Hizkera teknikoa "itzuli" eta irakurgai erraz eta irisgarri bihurtzen duelako.
- Helburu horiek lotze aldera, Euskadin egiten diren **ikastaro, hitzaldi edo tailerrei** buruzko informazioa bateratzen duelako.
- Sare sozialak gaitzeko eta komunitatea sortzeko tresnatzat erabiltzen direlako.
- Erantzunkidetasuna sustatzen duelako.

| **ERAGILEAK** | **KATEGORIA** |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Osakidetzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak programa koordinatzen du eta erabiltzaileek, pazienteek eta zaintzaileek informazioa, ezagutza, teknikak, arazoak, | ☒**GAIKUNTZA**<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA |

| | |
|---|---|
| balizko aukerak eta beste partekatzen dituzte. | ☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☒**PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK**<br><br>☐Beste batzuk… |
| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>**Hezkuntza-tailerrak berdinen artekoak dira**; hau da, gaixotasun kroniko bat duten pertsonek edo haien zaintzaileek bideratzen dituzte.<br><br>Tailer horietan, arazoei aurre egiteko tresnak, ohiturak aldatzeko helburuak, familiarekin eta osasun-talde profesionalarekin komunikatzeko teknikak, erlaxazio teknikak, ariketa fisikoari buruzko erabilera emozionala eta informazioa, nutrizio edukiak, medikazioaren erabilera egokia eta gaixotasunari buruzko oinarrizko ezaupideak ikasten dira. | **EZARGARRITASUN MAILA**<br><br>☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☐Ertaina<br><br>☒**Ertain-handia**<br><br>☐Handia |

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

Osasun Zerbitzuaren oso zerbitzu espezifikoa da, eta Herritartasun Eskolekin uztartu beharko litzateke, eskola horien ikuspegi holistikoaren baitan.

"Lehian" aritzen da Internet-en eskuragarri dagoen informazioarekin eta foro guztiekin.

Eraginkorra izango bada, eragile guztiek –profesionalek eta pazienteek– bat etorri behar dute.

**ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)

2016an, beste 26 begiralek eskuratu du titulua eta 219 dira orain, duela bi urte baino bi aldiz gehiago. Era berean, aurten 75 ikastaro egin dira eta 767 paziente bizi gehiago daude.

2016an, Osasun Eskolako "Paziente Bizia-Paciente Activo" programak, guztira, 3.363 paziente zituen aktibatuta, eta horiek 290 ikastarotan parte hartu zuten.

**BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)

https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-ckpaes04/es/contenidos/informacion/osapa_escuela_salud/es_objetivo/eoe.html

| **FITXAREN KODEA:**<br><br>CA05 | **IZENBURUA: ARAGÓN PARTICIPA – IKASTAROAK ETA JARDUNALDIAK** |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

‘Aragón participa’ programan, ikastaroei eta jardunaldiei dagokien atala nabarmendu behar da, bai eta parte hartzean oinarritutako ikastaroen kalitate handia eta aniztasuna ere. Hainbat erakunderekin lankidetzan garatzen da, besteak beste, Aragoiko Administrazio Publikoen Erakundearekin. Teknikari, politikari edo kargu hautetsi eta herritarrentzako ikastaroak eskaintzen dira.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

Gaikuntzaren sustapena parte hartzearen hiru alderdietan: publikoa, teknikoa eta politikoa.

| **ERAGILEAK**<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Aragoiko Gobernua, teknikariak, politikariak eta herritarrak. Ikastaroak eta jardunaldiak eskaintzen dituzten antolakundeak. | **KATEGORIA**<br><br>☒**GAIKUNTZA**<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk… |
|---|---|
| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Lurraldean eskaintzen den ahalik eta prestakuntza saio gehien biltzea partaidetzaren webgunean. | **EZARGARRITASUN MAILA**<br><br>☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☒Ertaina<br><br>☐Ertain-handia<br><br>☐Handia |

| |
|---|
| **ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br><br>Ikastaro eta jardunaldien hautaketa. |
| **ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)<br><br>Bertaratzeei buruzko datuak, baina ez dira zertan eredugarri izan. |
| **BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>http://www.aragonparticipa.es/quienes-somos<br><br>http://www.aragonparticipa.es/cursos-jornadas |

<table>
<tr><td>FITXAREN KODEA:<br><br>CA06</td><td colspan="2">IZENBURUA: Gobernu Irekiaren gidaliburu didaktikoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza</td></tr>
<tr><td colspan="3">DESKRIBAPENA (herritarren parte hartzearen arloan)<br><br>Gobernu Irekiaren gidaliburu didaktikoaren helburua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei Gobernu Irekiaren balio eta printzipioen berri ematea, denon artean, estatu irekiagoa eta arduratsuagoa eraikitzeko aldaketa prozesuan parte har dezaten. Behar-beharrezkoa da gardentasunaren kulturarekin, kontuak ematearekin, parte hartzearekin eta arlo publikoarekiko lankidetzan aritzearekin engaiatutako gizartea izatea, eta gidaliburu hau abiapuntua izan daiteke hezkuntzaren arloan.</td></tr>
<tr><td colspan="3">ZERGATIK (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)<br><br>Gobernu Irekiaren balio eta printzipioen berri ematen die Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei, eta balio horien artean, parte hartzea dago.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERAGILEAK (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta Lurralde Politika eta Funtzio Publikoaren Ministerioa, Espainiako Gobernu Irekiaren Hirugarren Ekintza Planak jasotzen duen Prestakuntzari buruzko bosgarren ardatzak dakartzan konpromisoekin bat eginda.</td><td>KATEGORIA<br><br>☒GAIKUNTZA<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk…</td></tr>
<tr><td>EKARPEN BERRITZAILEAK<br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Gazteriaren Lurralde Kontseilua Gazteriaren ordezkari jardun dezaketen gazteak, agintariei gazteen arazoak konpontzeko eska diezaieketenak.</td><td colspan="2">EZARGARRITASUN MAILA</td></tr>
</table>

| **Institutuetan lantzeko gidaliburua.** | |
|---|---|
| **ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br><br>Gidaliburuan ageri den Espainiaren kontzeptua Euskadirenera eramatea, zehazki, lurraldearenera.<br><br>Tokiko gazte guztiengana iristea. | |
| **ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)<br><br>Gogobetetze inkesta | |
| **BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>http://laaventuradeaprender.educalab.es/documents/10184/78318/Gu%C3%ADa+did%C3%A1ctica+gobierno+abierto_SOLO+PANTALLA+PAGINA+SIMPLE_20180131.pdf<br><br>**Linean parte hartzeko plataformak**<br><br>**Espainiako Gazteriaren Kontseilua:** http://www.cje.org/es/<br><br>**Euskadiko Gazteriaren Kontseilua:** http://egk.eus/es/inicio/<br><br>https://decide.madrid.es/<br><br>https://www.sevilla.org/decidesevilla/ | |

| FITXAREN KODEA: | IZENBURUA: Cibervoluntarios.org, teknologiaren gizarte erabilera |
|---|---|
| CA07 | |

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, gizarte-ekintzailez osatutakoa. Aitzindaria da mundu osoan teknologia berrien erabilera eta ezagutza sustatzen, eten digitalak hausteko eta bazterketa soziodigitalean dauden kolektiboei laguntzeko modu gisa, arazoak konpontzeko gizarte berrikuntza sortzen eta herritarrak ahalduntzeko loturazko proiektuak sustatzen.

CIbervoluntarios.org ekimenak bi alderdi praktiko biltzen ditu: teknologia eta gizarte ikuspegia. Gizarte berrikuntzan erreferentzia den plataforma hau 15 urtetik gorako esperientzia eraginkorrean eta metodologian oinarritzen da: prozesu erreplikagarriak identifikatzen ditu eta ukiezinak kudeatzea eta gizarte eragineko proiektuak eraikitzea ahalbidetzen du.

Ziberboluntarioek, ordean ezer eskatu gabe, bitartekoen erabilera modu baliagarri, erraz eta eraginkorrean eskaintzen duten aukerak ezagutaratzen dituzte, bai sarearen bidez, bai aurrez aurre, maila berean, ikastaroen, hitzaldien, tailerren eta ekitaldien bidez.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Gizarte kohesioa eta herritarren ahalduntzea sortzen duelako.
- Bazterketa soziodigitaleko egoerei erantzuten dielako.
- Eragileen borondatezko konpromisoan ardaztuta antolatzen delako.
- Jardunbide arrakastatsuak analizatzen eta ezagutarazten dituelako.
- Programa eta ekitaldien sistema egonkorra duelako eta uneko eta berehalako auziei erantzuteko malgutasun handia duelako.

| ERAGILEAK | KATEGORIA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura) | ☒**GAIKUNTZA** |
| Izaera juridikoa: Ziberboluntarioek osaturiko fundazio patronatuduna. | ☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA |
| Zerbitzuen bidez finantzatzen da (prestakuntza, aholkularitza, enpresaren gizarte erantzukizuna) | ☐UDALERRIA/LURRALDEA |

| | |
|---|---|
| dohaintzak, dirulaguntzak (Horizon 2020, Lan Ministerioa, Erasmus +) babesak, hitzaldiak eta lankidetzak eta gauzazko trukeak. | EZAGUTZEA<br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br>☐Beste batzuk… |
| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br>(Antolakuntza eta egitura)<br>Ziberboluntarioek doako aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen diete generoa, adina, ingurune profesionala, hezkuntza, baliabide material edo ekonomikorik eza edo beste arrazoi batzuen zioz, bazterketa soziodigitalerako arriskuan dauden pertsonei.<br>Ziberboluntarioak gizarte-¡ aldaketako eragileak dira, komunitateko preskriptoreak; izan ere, premia zehatzen aurrean, irtenbide sortzaileak sortzen dituzte. | EZARGARRITASUN MAILA<br>☐Txikia<br>☐Txikia-ertaina<br>☐Ertaina<br>☐**Ertain-handia**<br>☐Handia |
| **ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br>Arlo horri lotutako sektore profesionalekiko lehia.<br>Proiektu honen talde sustatzailea edo arduradunak sortzeko beharra (prozesuak, proposamenak eta helburuak ikuskatuz).<br>Konpromisoen agiri zehatza ezartzea boluntarioekin, proiektuari nolabaiteko egonkortasuna emateko. | |
| **ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)<br>1.500 ziberboluntario Espainia osoan.<br>Erakundeak hamabost urteko ibilbidea egin du, eta hainbat aintzatespen jaso ditu; azpimarratzekoa da, 2011n, Asturiasko orduko printze-printzesen eskutik jasotakoa, “Baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboei laguntzeko gizarte partaidetza eta berrikuntza modu berriak sortzeari” emandakoa; Google.org-en aintzatespen ekonomiko eta soziala, mundua aldatzen ari den 50 erakunde gisa aitortuta, Espainian, merezimendu hori daukan lehen erakundea, eta, oraingoz, bakarra; eta WSIS Prizes saria, 2016an, “Informazio gizartearen dimentsio etikoak” aitortuta. | |
| **BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br>https://www.cibervoluntarios.org/es/la-fundacion/quienes-somos | |

| FITXAREN KODEA:<br><br>CA08 | IZENBURUA: Porrotaren curriculuma, porrotaren naturalizazioa |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Porrotaren pertzepzioa kulturala da eta, hortaz, tresna egokiak erabiliz ekin behar zaio. Ezin dugu porrota ukatu, hartzen dugun erabaki bakoitzean eta egin nahi dugun gauza bakoitzean agerian dagoen ebidentzia baita. Baina beti pentsatu behar da porrota gure bizitzako edozein alditan ager badaiteke, zer egin dezaket nik porrotaren aurrean? Larria ez da porrot egitea, larria da egindako porrotetik ez ikastea.

Porrotaren curriculuma tresna metodologikoa da, bideo, tailer eta hitzaldi bidez egituratzen dena. @AlbertRibak garatu du, eta tresnak porrota identifikatzera eta berriro ez egiteko neurri zuzentzaileak hartzera behartzen zaitu. Horrela, iraganean zergatik huts egin duzun jakin eta horrekin zer ikasi duzun ulertuko duzu.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Porrota naturalizatzeko modua ematen duelako, garapen eta ikaskuntza tresnatzat baliaturik.
- Pertsonei eta erakundeei hobetzen laguntzen dielako, nork edo zeinek bere eskarmentuan oinarritua.
- Dagoeneko, irakasleentzako workshop eran lantzen ari delako (*Porrotaren kudeaketa arrakasta bultzatzeko*).

| ERAGILEAK | KATEGORIA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Albert Ribak sustatuta, Shaking Minds, Kataluniako Generalitatearekin eta Bartzelonako Unibertsitateko Psikologia Fakultatearekin lankidetzan. Irakasle, erakunde eta norbenakoentzat. | ☒**GAIKUNTZA**<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☒ **ANTOLAMENDU EGITURA**<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk… |

| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Laborategiko Logika legeztatzen du (han, erroreak eta porrotak onartzen dira).<br><br>Porrota ohiko bilakatzen du, norberaren edo laneko bizitzaren atal arrunta delakoan.<br><br>Porrot egindako ekinbideen azterketa proposatzen du helburuak betetzeko xedez. | **EZARGARRITASUN MAILA**<br><br>☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☐Ertaina<br><br>☐**Ertain-handia**<br><br>☐Handia |
|---|---|

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

Porrotaren kontzeptuzko estigmatizazioa.

Arrakastari lotutako balioak barneratzea garatzeko eta hobetzeko akuilu gisa.

**ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)

**BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)

http://albertriba.com/curriculum-fracasional/

http://albertriba.com/

https://www.educaciontrespuntocero.com/opinion/claves-para-aprender-del-fracaso-en-la-escuela/93213.html

| FITXAREN KODEA:<br><br>CA09 | IZENBURUA: HERRITAR KRITIKOEN ESKOLA (Alboan eta Deustu) |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

"Herritarren partaidetza eta gizarte-aldaketa" programaren helburua pertsona gisa eta laneko esparruan trebatzea da, esperientzia oso eta diziplinarteko batena oinarriturik. Esku artean duzun proposamenak gizarte garrantziko gaiak jorratzen ditu, hala nola herritarrak, errealitatearen azterketa, parte hartze arduratsuaren erabilera eta gizarte aldaketa.

22 eta 35 urte bitarteko gazteentzat, herritar gisako prestakuntzan eta konpromisoan sakondu nahi dutenentzat. Gizarte eta/edo eliza esparruetan parte hartzen duten gazteak, herritar gisako prestakuntzan eta konpromisoan sakondu nahi dutenak.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Errealitatearen irakurketa kritikoa egitea, gaurko mundua baldintzatzen duten dinamismo sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalei buruz hausnartuz.
- Herritartasunaren kontzeptuan sakontzea, kultura demokratikoa eraikitzeko funtsezko kontzeptuei buruz hausnartzea.
- Nork bere buruaren ezagutza sustatzea, gainerakoekiko jarduera kontzientea eta solidarioa ahalbidetzeko.
- Herritar konprometitu, arduratsu eta parte hartzaileak sustatzea, gizarte justuagoa, bihotz handikoagoa eta solidarioagoa eraikitzen lagundu nahi duten gazteen artean.

| ERAGILEAK | KATEGORIA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Alboan<br><br>Deustu<br><br>Herritarrak | ☒**GAIKUNTZA**<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk... |

| EKARPEN BERRITZAILEAK | EZARGARRITASUN MAILA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Ikastaroaren egitura sendo-sendoa, parte hartzaileetan eragin handia duena. | ☐Txikia<br>☐Txikia-ertaina<br>☒Ertaina<br>☐Ertain-handia<br>☐Handia |

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

Kasu honetan, 80 euroko kostua.

**ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)

Alboan antolakundeari telefono bidez eskatuta.

**BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)

https://www.alboan.org/sites/default/files/programa_2017_caste_2.pdf

https://alboan.civi-go.net/civicrm/event/info?reset=1&id=14

| **FITXAREN KODEA:**<br><br>CA10 | **IZENBURUA: Estonia, 2018 – 2020 OGP Ekintza Plana. Demokrazia Parte hartzailea.** |
|---|---|

| |
|---|
| **DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)<br><br>Ekintza Planaren barruko 3. Konpromisoa: “Demokrazia parte hartzailerako jarrerak eta trebetasunak garatzea”. |
| **ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)<br><br>Politika ireki eta inklusiboak herritarrek demokraziarekiko dituzten jarrerak eta trebetasunak garatzea dakar. Horrek ez du esan nahi ezagutza ikasgaietan bakarrik eskuratuko denik, ezpada, eskoletan jarrera integralagoak garatuko direla. |

| **ERAGILEAK** | **KATEGORIA** |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Estoniako Hezkuntza eta Ikerkuntza Ministerioa<br><br>Innove Fundazioa (estatukoa)<br><br>Gobernuz kanpoko erakunde interesdunak, Tallingo Unibertsitatea, Tartuko Unibertsitatea, Estoniako Historia eta Gizabide Irakasleen Elkartea, Giza Ikaskuntzaren Elkartea, eskualdeko gaikako atalak, Estoniako Eskola Eskoletako Ikasleen Kontseiluen Batasuna, argitaletxeak eta abar. | ☒**GAIKUNTZA**<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☒Beste batzuk… ikastetxeak |

| **EKARPEN BERRITZAILEAK** | **EZARGARRITASUN MAILA** |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Oinarrizko eskoletako eta bigarren mailako goi eskoletako ikasketa plan nazionalak eguneratzean eta 2018-2019rako hezkuntza eta | |

| | |
|---|---|
| ikerketa-¡ estrategia prestatzean, Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioak alderdi interesdunei egiten die kontsulta, baita gazte erakundeei ere, partaidetzazko demokraziarako beharrezkoak diren eskumenak ikasketa estrategian eta -planetan sartzen direla bermatzeko.<br><br>Alderdi interesdunek (gobernuz kanpoko erakundeak ere aintzat hartuta) ikaskuntzaren helburuak eta emaitzak ikaskuntzaren kontzeptu berriaren printzipioen arabera eguneratzeko proposamenak aurkezten dituzte. | |
| **ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br><br>Ikasketa planak aldatzea.<br><br>Ikastetxe guztietara hedatzea. | |
| **ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)<br><br>Ezarpen inkestak esku hartzen duten eragileei, ikastetxeei, irakasleei eta ikasleei. | |
| **BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>**Estoniako 2018-2020 OGP Ekintza Plana. 3. konpromisoa**<br>**https://docs.google.com/document/d/1h6NSxFG5viWkosGJB_fiktBTxBEZDNPG4nPrpPCAJaw/edit#heading=h.26in1rg** | |

<table>
<tr><td>FITXAREN KODEA:<br><br>CA11</td><td>IZENBURUA:<br><br>Neuronilla Fundazioa (Berrikuntza eta Sormena)</td></tr>
<tr><td colspan="2">DESKRIBAPENA (herritarren parte hartzearen arloan)<br><br>Proiektuetara bideratutako sormena eta berrikuntza bultzatzen ditu, eta pertsonei zein erakundeei zuzenduta dago. Sormenean eta berrikuntzan espezializatutako munduko lehen webgunea da espainieraz, pertsonak helburu komunen bila lotzeko helburua duena.<br><br>Prestakuntza, informazioa, coaching-a, aholkularitza, esperientzien ikaskuntza eta tailerrak jorratzen ditu, nahierara eta helburuetara bideratuta.<br><br>Sormena eta Berrikuntza jorratzeaz gain, Adimen Emozionala, Taldeko Lana, Komunikazioa, Motibazioa, Lidergoa, Coaching-a, Gizarte eta Hezkuntzako Esku hartzea, Zoriontasuna... lantzen dituzte.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ZERGATIK (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)<br><br>● Metodologia praktiko eta bizipenezkoa duelako.<br><br>● Norbanakoentzat, erakundeentzat eta gizarte nahiz komunitate baliabideentzat balio duelako.<br><br>● Webgunean bertan, prestakuntzako, norberak prestatzeko eta ikasteko baliabide ugari eskaintzen dituelako.<br><br>● Sormena eta berrikuntza proiektuarekin berarekin, ekintzailetzarekin eta enpresarekin lotzen dituelako.</td></tr>
<tr><td>ERAGILEAK<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Zuzendaritza<br><br>Prestakuntza, Aholkularitza eta Proiektuen lantaldea<br><br>Bazkideak</td><td>KATEGORIA<br><br>☒GAIKUNTZA<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA</td></tr>
</table>

| **Laguntzaileak**<br><br>**Patronatua** | ☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☒**PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK**<br><br>☐Beste batzuk… |
|---|---|

| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Gidaliburu praktikoak oso baliagarriak eskaintzen ditu, pilula gisan, ideia sortzaileak prestatzeko.<br><br>Sormena ezagutzaren gainetik jartzen du.<br><br>Metodologia oso praktiko eta bizipenezkoa.<br><br>Jolas ildoko ikasketa eredua.<br><br>Kudeatzaileek eginiko edukiak. | **EZARGARRITASUN MAILA**<br><br>☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☐Ertaina<br><br>☒**Ertain-handia**<br><br>☐Handia |
|---|---|

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

Egitura egonkorra, baina baliabidez hornitu behar da eta/edo dirusarrerak sortu.

Ukiezinak kudeatu eta “sortzen” ditu.

Sare sendo eta konprometituan oinarritzen da eta ongi bereizitako eginkizunak ditu.

**ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)

1998az geroztik, lanbide eskarmentu zabal dauka entzute handiko 160tik gora enpresa, erakunde publiko eta GKEei prestakuntza eta aholkularitza ematen. 14.000 pertsona baino gehiago Neuronilla sarean. Posizionamendu bikaina bilatzaileetan, eta hilean 60.000 pertsonak baino gehiagok bisitatzen du webgunea. 300 prestakuntza ekintza baino gehiago.

**BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)

https://www.neuronilla.com/

| **FITXAREN KODEA:**<br><br>CA12 | **IZENBURUA: Gobernu Irekiaren Gidaliburu Didaktikoa. Batxilergoa** |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Batxilergoan lantzeko Gobernu Irekiaren Gidaliburu Didaktoren helburua da Batxilergoko ikasleei Gobernu Irekiaren balio eta printzipioen berri ematea da. Helburu nagusia ikasleek gizartean eta gobernu eta administrazio publikoetan gardentasunaren, kontuak ematearen, parte-hartzearen eta lankidetzaren kulturak eragindako aldaketen partaide izatea da. Hau da, Gobernu Irekiaren partaide izatea.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

Gardentasunaren, kontuak ematearen, parte-hartzearen eta lankidetzaren kulturak gizartean eta gobernu eta administrazio publiko guztietan eragindako aldaketen partaide bihurtzen ditu ikasleak.

| **ERAGILEAK** (Antolakuntza eta egitura) | **KATEGORIA** |
|---|---|
| Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta Lurralde Politika eta Funtzio Publikoaren Ministerioa, Espainiako Gobernu Irekiaren Hirugarren Ekintza Planak jasotzen duen Prestakuntzari buruzko bosgarren ardatzak dakartzan konpromisoekin bat eginda. | ☒**GAIKUNTZA**<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk… |

| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br>(Antolakuntza eta egitura) | **EZARGARRITASUN MAILA** |
|---|---|
| **Lurraldeko Eskola Kontseilua.** Gazteriaren ordezkari jardun dezaketen gazteak, agintariei gazteen arazoak konpontzeko eska | |

<table>
<tr><td>diezaieketenak.<br><br>Institutuetan lantzeko gidaliburua.</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="2">ARRISKUAK (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br><br>Gidaliburuan ageri den Espainiaren kontzeptua Euskadirenera eramatea, zehazki, lurraldearenera.<br><br>Tokiko gazte guztiengana iristea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ADIERAZLEAK (ebaluazioa, hala badagokio)<br><br>Gogobetetze inkesta.<br><br>Ariketaren ebazte maila.</td></tr>
<tr><td colspan="2">BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>http://laaventuradeaprender.educalab.es/documents/10184/51635/Guia_GobAb_Bachillerato.pdf<br><br>Linean parte hartzeko plataformak<br><br>Espainiako Eskola Kontseilua:<br>http://www.educacionyfp.gob.es/educacion/mc/cee/portada.html<br><br>Euskadiko Eskola Kontseilua:<br>http://www.consejoescolardeeuskadi.hezkuntza.net/web/guest</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>FITXAREN KODEA:<br><br>CA13</td><td colspan="2">IZENBURUA: Gobernu Irekiaren Gidaliburu Didaktikoa. Lehen Hezkuntza</td></tr>
<tr><td colspan="3">DESKRIBAPENA (herritarren parte hartzearen arloan)<br><br>Lehen Hezkuntzan lantzeko Gobernu Irekiaren Hezkuntzari buruzko gida didaktikoaren helburua Lehen Hezkuntzako ikasleei Gobernu Irekiaren balio eta printzipioen berri ematea da. Gobernu Irekiaren hiru zutabe nagusiak, gardentasuna, parte hartzea eta lankidetza, zer diren azaltzea helburu duten hiru istorioen bidez egiten da hori, eta bakoitzeko jarduerak proposatzen dira.</td></tr>
<tr><td colspan="3">ZERGATIK (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)<br><br>Gobernu Irekiaren balio eta printzipioen berri ematen die Lehen Hezkuntzako ikasleei, eta balio horien artean, parte hartzea dago.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERAGILEAK (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta Lurralde Politika eta Funtzio Publikoaren Ministerioa, Espainiako Gobernu Irekiaren Hirugarren Ekintza Planak jasotzen duen Prestakuntzari buruzko bosgarren ardatzak dakartzan konpromisoekin bat eginda.</td><td>KATEGORIA<br><br>☒GAIKUNTZA<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☐UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk…</td></tr>
<tr><td>EKARPEN BERRITZAILEAK<br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Haurren Lurralde Kontseilua Haurren ordezkari jardun dezaketen neska-mutikoak, agintariei gazteen arazoak konpontzeko eska diezaieketenak.</td><td colspan="2">EZARGARRITASUN MAILA</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **Ikastetxeetan lantzeko gidaliburua.** | |
| **ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)<br><br>Tokiko haur guztiengana iristea. | |
| **ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)<br><br>Gogobetetze inkesta.<br><br>Ariketen ebazte maila. | |
| **BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>http://laaventuradeaprender.educalab.es/documents/10184/51635/Guia_GobAb_Primaria/ | |

| **FITXAREN KODEA:**<br><br>CT01 | **IZENBURUA:**<br><br>**Herritarren Ekimenen Mintegia, Herritarren berrikuntza eremu publikora hedatzea** |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

[VIC] Herritar Ekimenen Mintegia plataforma irekia da, lankidetzakoa, eta ekimen eta prozesu kritikoak sustatu, zabaldu, aztertu eta babestea xede du, herritarren proposamen asmoz, eta arreta berezia jartzen du lurraldeari, hiriari eta eremu publikoari egindako transferentzietan.

"Gauzak egiteko beste modu bat" dakarten herritarren ekimenak kartografiatzen dituzte, gizarte berrikuntzako kontzeptu, eragile eta ekimen berriak txertatuz eta arkitekturaren eta hiri arloaren arloko proiektu eta proposamenetan (kasu-azterketak) duten aplikagarritasuna aztertuz.

Proiektuak eta estrategiak edo "egiteko moduak" proposatzen dituzte, eraikitzen ari garen sareko gizartea osatzen dugun eragileen arteko zubi izan daitezen.

Talde ezagutza partekatzen dute hainbat tailer, topaketa eta foro irekietan, gizartean lotura eguneratuak sortuz, eta egoera zehatzei buruzko ibilbideak entzun, aztertu eta proposatuz, teoria eta praktika biltzea ahalbidetzen dutenak.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Erakundeak bazter utzita, balio publikoa sortzen duen ekimena delako.
- Ezagutza eta eskarmentua herritarren artean transferitzen duen plataforma delako.
- Ahalduntze garbia ahalbidetzen duen tresna delako, ingurunea aldatzeko proposamen, ideia eta ekintzetan oinarrituta.
- Datu base ireki gisa funtzionatzen duelako.

| **ERAGILEAK** | **KATEGORIA** |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Herritartasun Ekimenen mintegia gizarte bitartekaritzarako eta topaketarako tresna da, eta datu-base ireki eta erreal gisa jardutea proposatzen du. | ☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA |

| | |
|---|---|
| Laguntzeko modu batzuk daude:<br><br>Zure inguruko edo hiriko herritarren ekimenak bidaliz. Erregistroan jasoko dira, eta une horretatik aurrera ikusgai egongo dira.<br><br>Zure webgunetik edo blogetik esteka erantsiz. Proiektua garatzen lagunduko du.<br><br>Bistaratzeko tresna berriak txertatuz, ekimenak ezagutarazteko lehendik daudenen erabilera areagotzen dutenak.<br><br>Tokiko ekimenen mapak zure webgunean argitaratuz.<br><br>[VIC] Herritarren Ekimenen Mintegiaren plataforman kidetuz, blogean argitaratuz edo posta zerrendan harpidetuz.<br><br>Plataformaren eta zure inguruneko herritarren ekimenen zabalkundea eginez. | ☒ **UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA**<br><br>☒ **ANTOLAMENDU EGITURA**<br><br>☒**PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK**<br><br>☐Beste batzuk… |

| | |
|---|---|
| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Datu base ireki gisa funtzionatzen du.<br><br>Autogestioa darabil, erakundeetatik at.<br><br>Kideek eginkizun bereiziak izan ditzake.<br><br>CIVICS izeneko taldeko mapatze tresna dago erabilgarri.<br><br>Egungo hiriari buruko prozedura kritikoak garatzen dituzte. Jarduten duten inguruneetan, gizarte berrikuntza sustatzen duten eragileak izan nahi dute. | **EZARGARRITASUN MAILA**<br><br>☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☐Ertaina<br><br>☐**Ertain-handia**<br><br>☐Handia |

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

Sustatzaileen asmo eta nahien mendekoa da.

Konpromiso eta betebeharren arautze falta.

| |
|---|
| Homogeneitate falta eta mahairatutako ekimenen egiaztapen gabezia.<br><br>Leku-pertsonak egiaztatzeko wikiaren zailtasunak. |
| **ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)<br><br>28 hiri eta gizarte, herritarren eta komunitatearen 5.000 ekimen baino gehiago kartografiatu ditu. |
| **BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)<br><br>http://viveroiniciativasciudadanas.net/que-es-vic/ |

| **FITXAREN KODEA:** CT02 | **IZENBURUA: MeinBerlin, Berlingo Partaidetza Plataforma** |
|---|---|

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

MeinBerlin partaidetza elektronikoko plataforma nagusia da Alemaniako hiriburuan eta hango eskualdean. Plataforma dugu hiriko administrazioak abiarazitako parte hartze elektronikoko aukera guztietarako sarrera eta tresna kutxa nagusia.

Helburua eskualdeko, hiriko eta barrutiko partaidetza prozesu guztiak bateratzea da, herritarrentzat prozesu horiek aurkitzea eta horietan parte hartzea errazagoa izan dadin.

Gainera, parte hartzeko moduluen multzo estandarizatua eskaintzen duenez, plataformak hiriko administrazioa errazagoa eta eraginkorragoa egiten du herritarrei parte-hartze elektronikoa eskaintzerakoan.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Parte hartzeko prozesu guztiak bateratzen dituelako, baina berezitasun bat dauka: arlo askotako parte hartzeko prozedurak daude.
- Mota batzuk daudelako: Batzuk legez eskatu eta legez emandako arauak dituztelako (adibidez, garapen planaren prozedura). Beste metodo batzuk, berriz, dagokion galderaren araberakoak dira.
- Parte hartzeko hainbat modu daudelako: galderak, iradokizunak eta iritziak, eta erabakiak hartzea.

| **ERAGILEAK** | **KATEGORIA** |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Udalak sustatuta, plataformak ikuspegi orokorra eta hainbat prozeduratarako sarbidea ematen du. Horretarako, erregistro bat besterik ez da behar. Adhocracy softwareari esker, parte hartzea badago, prozesuaren arabera erabiltzeko errazak diren hainbat funtzio eskaintzen baititu. | ☐GAIKUNTZA<br><br>☐ GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☒ **UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA**<br><br>☐ANTOLAMENDU EGITURA<br><br>☒**PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK**<br><br>☐Beste batzuk… |

| EKARPEN BERRITZAILEAK | EZARGARRITASUN MAILA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura)<br><br>Parte hartzeko prozesu guztiak bateratzen ditu.<br><br>Deliberazio prozesu sendoa sorrarazten du.<br><br>Proiektuaren arabera, parte hartzea arautzea eskaintzen du. | ☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☐Ertaina<br><br>☐**Ertain-handia**<br><br>☐Handia |

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

Eten digitala

Behar bezala antolatutako kolektibo txikiek orokorra ez den iritzi joera sorraraz dezakete.

Informazio eta eztabaida kanala da, baina udalak ez dauka gauzatzeko legezko konpromisorik.

Kudeatzailearen esku hartzea zein den, eztabaida eta ekarpenak emankorragoak izan daitezke.

**ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)

Prozesu guztietarako, saio nagusi baten hasiera dago plataformaren erabiltzaileentzat. MyBerlinen, Adhocracy software librearen egungo partaidetza modulu guztiak erabiltzen dira: ideien bilketa, garapen parte hartzailea eta testu dokumentuen iruzkinak, proposamenen mapak, koordinazioa eta eztabaida, eta proposamenen aurrekontu eta kategorizazio malgua.

**BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)

**https://mein.berlin.de/**

| FITXAREN KODEA: | IZENBURUA: |
|---|---|
| CT03 | Impacta ekimena, Berrikuntza publikoaren lehiaketa irekia (Txileko Gobernuaren Laborategia) |

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Impacta berrikuntza publikoaren lehiaketa irekia da, eta herritarrak konektatzen eta mobilizatzen ditu erronka publikoei irtenbiderik onenak bilatzeko xedez.

1. Estatua talentu pribatuaren aurrean irekitzen du, lehentasunezko erronka publiko bat jorratuta.
2. Ideia berritzaileak dituzten Txileko eta nazioarteko ekintzaileen ekosistema anitza abiarazten du.
3. Negozio eredu balidatuak dituzten prototipoetan, irtenbideak eta eraldaketak gorpuzten ditu.
4. Gobernuaren politika publiko bihurtzen du mahairatutako arazoari egokitzen diren irtenbiderik onenak.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Herritarrei erronka zehatzak eta zerbitzu soziokomunitarioekin lotutako egoera eta inguruabar kritikoak proposatzen dizkielako.
- Adimen kolektiboa azaleratzen duelako eta proiektu zehatzen inguruan bat egiten duelako.
- Aurrekontuaren laguntza duelako proposamenak inkubatzeko, pilotatzeko eta garatzeko.
- Komunikazioaren ikuspegitik, prozesuaren helburu eta lorpenen berri ematen duelako.

| ERAGILEAK | KATEGORIA |
|---|---|
| (Antolakuntza eta egitura) | ☐GAIKUNTZA |
| Presidentziako Idazkaritza Nagusia buru duen eta | ☐ GIZARTEAREN ETA |

| | |
|---|---|
| ministerioen arteko ordezkaritza duen direktorio bati atxikita dago. Bertan, Ogasun Ministerioak, Ekonomia, Sustapen eta Turismo Ministerioak (CORFO), Errepublikako Presidentetzako ordezkari batek eta gizarte zibileko bi ordezkarik parte hartzen dute. Gizarte zibileko aholkularitza talde aditu batek ere aholku ematen dio, eta diziplina anitzeko talde batek osatzen du. | KOMUNITATEAREN SENDOTZEA<br><br>☒ **UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA**<br><br>☒ **ANTOLAMENDU EGITURA**<br><br>☐PARTE HARTZEKO PLATAFORMAK<br><br>☐Beste batzuk… |
| **EKARPEN BERRITZAILEAK**<br><br>(Antolakuntza eta egitura)<br><br>Ikuspegi metodologikoak: Diseinuan eta esperientzien ikaskuntzan oinarritutako Berrikuntza eta ekintzailetzako metodologiak (Lean Startup) nahiz berrikuntza irekia.<br><br>Gai kritikoak hautemateaz gain, herritarren erronka gisako proposamena.<br><br>Gizarte zibilaren parte hartzea sustatzen duten antolakuntza. | **EZARGARRITASUN MAILA**<br><br>☐Txikia<br><br>☐Txikia-ertaina<br><br>☐Ertaina<br><br>☐**Ertain-handia**<br><br>☐Handia |

**ARRISKUAK** (ahulguneak / aintzat hartu beharreko oztopoak)

Giza baliabideak epe labur eta ertainean konprometitzeko beharra.

Herritarrei itzultzeko beharra, inkubazio eta proiektu zehatzen garapen gisa.

Proiektua garatzeko, sentsibilizazio kultura eta gaikuntza sustatzeko beharra.

Ez dago emaitzarik epe laburrean.

**ADIERAZLEAK** (ebaluazioa, hala badagokio)

3.395 pertsona mobilizatu dira.

895 herritarren taldek proiektuak aurkeztu dituzte.

52 irtenbide inkubatu eta bizkortu dira.

14 proiektu pilotatu dira.

1 proiektu garatu da.

**BESTE DATU JAKINGARRI BATZUK** (estekak, bitartekoak, argazkiak, PDF fitxategiak…)

https://www.lab.gob.cl/iniciativas/impacta/

| FITXAREN KODEA: | IZENBURUA: |
|---|---|
| CT04 | An Tionól Saoranách, Irlandako Herritarren Batzarra |

**DESKRIBAPENA** (herritarren parte hartzearen arloan)

Presidenteak eta 99 herritarrek osatzen dute Batzarra. Ausaz aukeratzen dira, Irlandako hautesleen ordezkaritza zabala izateko. Irlandaren etorkizunean, aurre egin behar dioten gai garrantzitsuenetako batzuk kontuan hartzeko eratzen da batzarra.

Herritarren Batzarra deliberazio demokraziaren ariketa izan da, eta herritarra Irlandako gizarteak aurrez aurre dituen legezko gai eta gai politiko garrantzitsuen erdigunean jarri du. Adituen aholkularitza inpartzial eta objektiboaren laguntzaz, 100 herritar kideek gai esanguratsuak jorratzen dituzte. Batzarraren ondorioak funtsezkoak izan ziren Oireachten Etxeei (Legebiltzarra) aurkeztu zitzaizkien txostenak eta gomendioak prestatzeko, ondoren, ordezkari hautetsiek eztabaida zitzaten.

**ZERGATIK** (eredutzat har dezakegun, arrakastaren giltza)

- Deliberazio demokraziaren adibide eredugarria delako.
- Oinarri zientifikoz egindako hautaketa delako (ordezkagarritasuna du).
- Herritarrak eta presidentzia zuzeneko harremanetan jartzen dituelako.
- Aurrekontuko egonkortasuna eta konpromisoa badaudelako.
